


Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 59.000 gaztek, hau da, gazteen % 18k sexu-harreman arriskutsuren bat izan dute

2012an, emakumezko 1000 nerabetik 9,7 haurdun geratu ziren

[Gazteen Euskal Behatokia](#) lau urtean behin plazaratzen duen *Euskadiko gazteak* azterlanaren arabera, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 18,4k sexu-harreman arriskutsuak izan dituztela aitortu dute.


Sexu-harremanak babesik gabe izan dituzte ia 59.000 gaztek, elkarriketa egin aurreko urtean.

Sexu-harreman arriskutsuak aipatzen ditugunean, honako honetaz ari gara: sexu-transmisio bidezko infekzioen (STI) bat hartzeko edota nahi gabe haurdun geratzeko arriskua duten sexu-praktikez ari gara.



Inkestan hartutako arrisku-motari buruz jasotako erantzunei erreparatuta, nahi gabe haurdun geratzeko arriskua da gazteek duten kezkarik handiena. Babesik gabeko harreman batean sexu bidezko transmisio bidezko infekzio bat hartzeko arriskuaren pertzepzioa askoz ere apalagoa da, gazteei zuzendutako prebentzio-kanpainak ugariak izan arren.


2012an, gizonen proportzio handixeagoan aitortu dute sexu-praktika arriskutsuak egin izana, emakumeek baino. 15 eta 29 urte bitarteko gizon gazteen % 20k sexu-harreman arriskutsu bat izan dute gutxienez, inkesta egin aurreko urtean. Emakume gazteen kasuan, egoera horretan daudenen ehunekoa % 16,7 da.



Adinean gora egin ahala, handiagoak dira sexu-esperientzia eta harremanen maiztasuna. Horrek, jakina, areagotu egin ditzake sexu-jokaera arriskugarriak izateko aukerak. Joera hori ahal den neurrian ekiditearren, eta adinaren arabera babesik gabeko sexu-jokaeretan alderik dagoen jakite aldera, sexu-esperientzia dutenen erantzunak baino ez ditugu aztertu (Euskadiko gazteen % 78). Datuak horrela aztertuta, ez da alderik ageri adin-taldeen artean. Izan ere, haurdun geratzeko edo STI bat hartzeko arriskua duen harremanen bat izan duten eta sexualki aktiboak diren gazteen ehunekoa 23-24 puntukoa da, adin-talde guztietan.


Praktika arriskugarri horiek gazteengan dituzten eraginetara hurbiltzeko, praktika horiekin estu lotuta dauden bi fenomenoren bilakaeran jarri dugu arreta: nerabeen haurdunaldietan, batetik, eta, bestetik, GIB infekzio antzeman berrietan.

2012an, 15 eta 17 urte bitarteko 72 nerabek haurra izan zuten EAEn, eta beste 170ek haurdunaldia borondatez eten zuten (HBE). Bilakaerari erreparatuta, jaiotza-kopuruak antzekoak izan dira, baina HBEen kopuruak gora egin du.



Osasun Sailak eta Estatistikako Institutu Nazionalaren Jaiotzen Estatistikak eskainitako datu hauek erabili eta nerabeen haurdunaldien tasa osatu du Gazteen Euskal Behatokiak. Tasa horrek oso informazio sintetiko eta baliagarria ematen du, hainbat erakundek sexu-osasunari buruz gazteei zuzenduta garatzen dituzten esku-hartzeen eraginaren jarraipena egiteko.

Nerabeen haurdunaldien tasa kalkulatzeko, urte jakin batean egondako haurdunaldien borondatezko etenduren kopurua eta 15 eta 17 urte bitartekoek izandako erditzeena gehitzen dira eta emaitza adin horietako gazteen kopuruarekin erlazionatzen. Tasa 9,7koa da EAEko 15 eta 17 urte bitarteko 1000 emakume gazteko. Tasa altuagoa izan da 2003tik 2007ra; 2007tik aurrera, egonkortu egin da: 9 puntu inguruan geratu da, adin-talde horretako 1000 emakumeko.



Bestalde, 2012an, 44 GIB infekzio berri antzeman dira gazteen artean. Zifra aurreko urteetakoaren antzekoa izan da. Infekzio berri horietatik, 34 gizonei antzeman zaizkie, eta 10 emakumeei. Infekzioaren transmisioa sexu-harremana izan da kasu guztietan, batean izan ezik, ez baita transmisio-bidea ezagutzen. Emakumeen kasuan, harreman heterosexualen bitartez gauzatu da transmisioa; gizonen kasuan, ordea, harreman homosexual edo bisexualak dira nagusi. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen GIB infekzioak EAEn 2012an antzemandako infekzio berri guztien % 27 dira, EAEko Hiesa eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Planaren arabera.

Urteak dira Osasun eta Hezkuntza sailak elkarlanean dabiltzala sexu-hezkuntzaren eta infekzioen edo nahi ez diren haurdunaldien prebentzioaren arloetan. GIB/Hiesa prebenitzeko hezkuntzaren arloko programa bat hasi zuten bi sailek 1989an, gehienbat 16 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendua. Programa sexu bidezko transmisiozko beste infekzio batzuen prebentziora zabaldu zen 2003an. 2008-2009 ikastaroan berriro ere zabaldu zen, bere baitan nahi ez diren haurdunaldiak prebenitzeko jarraibideak sartzeko. Beraz, programak bere laguntzarako materialak eguneratu ditu arian-arian, eta modu bateratuan lantzen ditu egun sexu-harremanei lotutako arrisku guztiak. Programa EAEko ikastetxe guztiei eskaintzen zaie.

Nerabeen sexu-heziketarako beste tresna lagungarri bat da [SEXUMUXU](#) programa interaktiboa, teknologia berrietan oinarritua eta DBHko hirugarren eta laugarren mailetako ikasleei zuzendua. *Sexumuxuk* norberaren gorputzaren ezagutza, harremanak, prebentzioa eta kontrazepzioa lantzen ditu.

Osakidetzak [osasun sexuala zaintzeko baliabideen gida](#) eskuragarri jarri ditu *online*.

Azterketa honetan eskainitako datuak Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan kontsulta daitezke, Adierazleen Sistemaren "Osasuna" izeneko atalean.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

